

ZARAUZKO UDALEAN EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA.
VII PLANGINTZALDIA 2023-2027

Zarauzko Udala



Zarautzen, 2024ko martxoan

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
2.	IDEIA NAGUSIAK.....	2
3.	EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA.....	3
3.1	OINARRI METODOLOGIKOAK.....	3
3.2	IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU.....	4
3.3	NOLA EBALUATU.....	4
4.	VI. PLANGINTZALDIKO ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VII. PLANGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO DIAGNOSTIKOA.....	5
4.1	KUDEAKETA.....	6
4.2	ERABILERA.....	7
5.	ONDORIO NAGUSIAK.....	10
6.	DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA ETA EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO UNITATEAK...	11
7.	VII. PLANGINTZALDIKO OINARRIAK.....	11
	MISIOA.....	11
	BALIOAK.....	11
	ERRONKA NAGUSIAK.....	12
	LAN ILDOAK.....	12
8.	ZARAUZKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027	13
9.	AGINTE PANELA.....	20
10.	HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK (laburpen taula).....	20
11.	EGITURA ETA JARRAIPERNA.....	22
11.1.	Jarraipen batzordea.....	22
11.2.	Itzulpen-zuzenketa zerbitzua.....	22
11.3.	Euskara taldea.....	22
11.4.	Lantaldeak.....	24
11.5.	Kanpoko ebaluatzaileak.....	24
	ERANSKINAK.....	25
I.	ERANSKINA: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI).....	25

1. SARRERA

Zarauzko Udala 2018-2022 Plangintzaldiko Erabilera Planaren ebaluazioa egiten hasi da 2023ko udazkenean, eta VII. Plangintzaldira begira jarri da Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategiko berria zehazteko. KEMEN marko orokorra erabili da plan berria egiteko. Kudeaketa eta erabilera arloen arabeko plana egin dugu, eta marko horrek proposatutako adierazleak hartu dira 2023-2027 ziklo berriari begira.

Bestalde, egindako lana Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUA onartzeko garaian kokatu behar dugu. Dekretu berriak 86/1997 Dekretua ordezkatu du. Gauzak horrela, Zarauzko Udalak bere hizkuntza-irizpideak berritu ditu 19/2024 Dekretuko berrikuntzak kontuan hartuz eta UEMAk emandako gidalerroen arabera.

Dokumentu honetan, ebaluazio kuantitatiboko datuak eta ebaluazio kualitatiboa jaso ditugu. Hainbat adierazletan eta bereziki horretarako antolatutako saio parte-hartzaileetan bildu dira. Bestalde, Plan Estrategiko berrian landuko diren ekintzak jaso dira, eta BIKAIN Ziurtagiriaren arabeko aurreikuspena ere egin da, zein puntuazio-mailatan egongo litzatekeen adierazten duen panel batekin. Hizkuntza-irizpide berriak ere txosten honetan jaso dira.

Amaitzeko, ebaluazio-prozesuan parte hartu duten guztien lana aitortu eta eskertu nahi dugu.

2. IDEIA NAGUSIAK

Zarautzen herritarren % 73,45 da euskal hiztuna (horietatik % 48,55 gizonak eta % 51,45 emakumeak); UEMako udalerrria da. Udala gai da zerbitzua euskaraz emateko, urteetan egin dituen planei esker. VII. Plangintzaldi honetan, Udalaren asmoa da herritarrei kalitatezko zerbitzua emateaz haragoko plana garatzea, eta kudeaketan eta liderren eredugarritasunean oinarritutako plana izatea.

Plangintzaldi berria Eusko Jaurlaritzaren gidalerroak aintzat hartuta egin dugu, eta ideia nagusi hauen arabera:

Sektore publikoak hizkuntzak kudeatzeko duen betebeharra. Administrazioa gero eta euskaldunagoa da oro har —batez ere udalak—, eta haren betebeharra da bi hizkuntza ofizialak egokiro kudeatzea. Izan ere, herritarrek, gero eta gehiago, administrazioa euskara erabiltzeko espazio gisa identifikatzen dute. Horregatik, Zarauzko Udalak euskararen erabilera indartzea eta areagotzea du helburu, bai zerbitzu-hizkuntza bai lan-hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideei erantzuteko.

Herritarrek eskubidea dute Udalarekin izaten dituzten harremanetan hizkuntza ofizial batean zein bestean ahoz zein idatziz aritzeko; edozein hizkuntza ofizialetan erantzuna jasotzeko.

Udalak bermatu egingo ditu eskubide horiek, eta ez du inor baztertuko erabiltzen duen edo erabili nahi duen hizkuntzarengatik. Udalak hizkuntza-politika integratzailea bultzatuko du, eta bitartekoak jarriko ditu herritar guztien parte-hartzea eta elkarbizitza bermatzeko.

Agintarien ekimena giltzarri. Agintariak gidatuko dute hizkuntzen kudeaketa, eta hainbat arlotan jarri beharko dute fokua:

- ↪ Sistema eta egitura baten beharra
- ↪ Lidergoa eta eredugarritasuna erakusteko beharra
- ↪ Euskara bultzatzeko bideak jartzea, jarrera aktiboak erakustea
- ↪ Kolektiboan giro parte-hartzailea bultzatzea, eta egiteko modu parte-hartzaileak abian jartzea
- ↪ Norbanakoen konpromisoari erreparatzea eta bultzada ematea

Arrakastatsua izateko, berriz, ezinbestekotzat jotzen dugu honako helburu hauek ere betetzea:

- ↪ Euskal hiztunen estres linguistikoa arintzeko lan-moduak abian jartzea, eskaintza aktiboa
- ↪ Kalitatezko kudeaketa egitea: datuak jaso, ebaluazioak egin, eta, oro har, kudeaketa-sistema bat jartzea plangintzaldi osoan zehar
- ↪ Hizkera argia eta kalitatezko testuak sortzea

3. EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURA

Zarauzko Udalak VI. Plangintzaldiaren ebaluazioa egin du Euskara Departamentuaren gidaritzapean. Hala, ondorengo lerroetan jasoko dugu ebaluazioa nola egin den eta baita ondorio nagusiak ere.


3.1 OINARRI METODOLOGIKOAK

Txosten honetan jasotzen den ebaluazioa Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia eta irizpideak jarraituz egin da, eta oinarri-oinarrian KEMEN markoa dago.

KEMEN lanerako marko estandarra da. Laguntza-koadro bat da, eta bertan modu eskematiko eta ordenatuan adierazten da erakundean nola gauzatzen den hizkuntzaren presentzia, erabilera eta kudeaketa.

Bi ardatz nagusi ditu: kudeaketa eta erabilera. Honako hauek dira ezaugarri nagusiak:

- ↪ Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- ↪ Planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa.
- ↪ Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.
- ↪ Zeharkakotasuna erronka gisa.



Irudian KEMEN markoa osatzen duten 2 ardatzak, 13 arloak eta 48 adierazleak. Plan Estrategikoa eta urtez urteko kudeaketa-planak marko honen arabera zehaztuko dira.

3.2 IRISMENA: ZER EBALUATU/ZER NEURTU

Zarauzko Udalean guztira **218** langile daude (horietatik % 60 emakumeak eta % 40 gizonak). Aipatu den moduan, hainbat bide erabili dira Udalean euskararen egoera zein den jakiteko, eta horietako bat langileei bidalitako galdetegia izan da.

Guztira **100 langilek** erantzun dute galdetegia, 71 emakumek eta 29 gizonek. Bestalde, galdetegiaz gain, **saioak** egin dira departamentu desberdinetako langileekin, informazio kualitatiboa batzeko.

Aipatzekoa da, baita ere, Udalak aurreko plangintzaldian jasotako datuak erabili direla erakundearen galdetegia betetzeko.

3.3 NOLA EBALUATU

Iturri desberdinak erabili ditugu ebaluaziorako. Alde batetik, galdetegia erabili da; bestetik, aurrez aurreko saioak eta bilera zehatzak ere bai. Ahozko erabileraren kasuan, erabileraren behaketa zuzena egin da.

INFORMAZIOA BATZEKO ITURRIAK ETA TEKNIKAK

Erakundearen informazioa eskuratzeko, bi iturri hauek erabili dira:

Behaketa zuzena	↪ HPSk proposatutako galdetegia. Euskara Departamentuak berariaz neurtu eta jasotako datuak
Galdetegiak	↪ Langileei begirako galdetegi zehatza, HPSk proposatutakoa
Saioak	↪ Zarauzko Udaleko langileekin 4 saio egin ziren, kolektibo desberdinak elkartuta <ul style="list-style-type: none">○ Zerbitzua herritarrei zuzenean ematen dieten langileak, harreretan dauden langileak bereziki○ Administrariak○ Kudeaketa arlokoak, departamentuetako teknikariak○ Langileen Batzordeko kideak○ Arduradun politikoak: kontrasterako

4. VI. PLANGINTZALDIKO ERABILERA PLANAREN EBALUAZIOA ETA VII. PLANGINTZALDIKO PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO DIAGNOSTIKOA

Goiko lerroetan aipatu den moduan, KEMEN markoa erabiliz egin da VI. Plangintzaldiaren ebaluazioa, eta plan berria zehazteko oinarria ere izan da.

KEMEN Kudeaketa eta Erabilera Marko berriak marko eta metodologia bat ematen du Euskal Sektore Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko eta horren jarraipena egiteko. Bestela esanda, hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatz, eremu eta arloak jasotzen ditu, neurketa egiteko adierazleak, eta horiek neurtzeko euskarri eta azalpenak. Hortaz, euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen sistema integral bat da, eta lehenetsutako tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Kudeaketa, hala ere, helburua baino, palanka bat da, hain zuzen ere, erabilera eragiteko balio duena. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipen adierazleen sistemak eguneratu ditu, eta erabilera dagozkion adierazleetan eragin handia duten beste batzuk txertatu ditu: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

4.1 KUDEAKETA

Guztira 6 arlok eta 16 adierazlek osatzen dute ardatz hori. Zarauzko Udalean emaitza ALTUA da, oro har, arlo guztietan. Zarauzko Udalean **honako hau da** KUDEAKETA ardatzaren emaitza:

EMAITZA KUDEAKETAN: % 69,2

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA		Emitza
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	75
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	75
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	95
1.0.2 arloa: LIDERGOA		Emitza
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategikoaren eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	91,67
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategikoan eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen	75
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategikoan eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan	50
1.0.3 arloa: LANGILEAK		Emitza
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	63,00
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	94,00
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	94,00
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	17,35
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundearen duen bilakaeraz.	82,65
1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA		Emitza
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	90,82
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	86,73
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	95
1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA		Emitza
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.	75

1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	50
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA KLAUSULAK		Eraitza
1.0.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira	100
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	25
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	25

Indarguneak

- ↪ Langileen ezagutza altua da, eta arduradun politikoen artean ere ezagutza nahiko altua da.
- ↪ Erraztasunaz galdetuta, langileen gehiengoak erraztasun handia du euskaraz jarduteko: % 31,63k aitortzen du euskaraz errazago aritzen direla idatziz, eta % 39,80k ahoz erraztasun handiagoa duela. Gaztelaniaz zein euskaraz erraztasun berdina dutela esaten dute % 45,92k ahoz eta % 46,94k idatziz.
- ↪ Trebakuntza landu izan da langileekin urte askotan zehar Udal Euskaltegiaren laguntzarekin.
- ↪ Kontratazioetan, hitzarmeneta eta dirulaguntzetan klausulak txertatzen dira.
- ↪ Langileek erabilera-planaren balorazio positiboa egiten dute.
- ↪ Komunikaziorako buletin bat bidaltzen da maiztasunez, eta langileek oso balorazio positiboa egiten dute.
- ↪ Hizkuntza-irizpideen betetze-maila oro har altua da.

Hobetzekoak

- ↪ Harrera linguistikoa egin eta prozedura sistematizatzeko beharra dago. Etorkizun hurbilean aldaketa asko izatea aurreikusten da, eta jende berri asko egongo da Udalean.
- ↪ Udalak kontratatzen dituen zerbitzueta jarraipena sistematizatu. Departamentu sustatzaileekin elkarlanean egin behar da. Zailtasunak daude hainbat kontratutan jarraipena egiteko.
- ↪ Teknikari eta arduradun politikoen eredu-garritasuna indartzen jarraitu beharra dago.
- ↪ Erabilera-plana aurrera eramateko egitura operatibo bat sortzea egokia litzateke, Euskara Departamentuarekin batera lanean aritzeko.
- ↪ Departamentu batzuetan gabezia handiagoak daude beste batzuetan baino, eta interbentzio zehatzagoak behar dira. Kasu batzuetan, eta batez ere gai batzuetan, erraztasun handiagoa dute langileek gaztelaniaz jarduteko euskaraz baino. Kasuan kasu aztertu behar da.

4.2 ERABILERA

Guztira 7 arlok eta 28 adierazlek osatzen dute ardatz hori. Kasu honetan ere Zarauzko Udala maila ALTUAn dago; **honako hau da** eraitza orokorra:

EMAITZA ERABILERAN: % 86,1

ZERBITZU-HIZKUNTZA

Oro har, zerbitzu-hizkuntzaren datuak oso altuak dira, beraz, Zarauzko Udalaren euskarazko eskaintza oso altua da: ia % 100ean bermatzen zaio herritarrari zerbitzua euskaraz izatea.

Daturik baxuenak herritarrek Udalean egiten duten hautuarekin dute zerikusia. Herritarrek Udalera zuzentzen direnean, % 68,31k ahoz egiten du, eta % 19k idatziz.

2.1.1 arloa: IRUDIA		
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude (<i>euskaraz % 70, ele bitan % 30</i>).	100
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude (<i>euskaraz % 60, ele bitan % 40</i>).	100
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	100
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	100
2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK		
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	94,38
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	99,66
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	90
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota bi hizkuntzetan bidaltzen zaizkie dokumentuak	100
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	100
2.1.2.30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	68,31
2.1.2.31	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	19

LAN-HIZKUNTZA

Lan-hizkuntzari dagokionez ere, Zarauzko udal barruan oso altua da euskarazko hizkuntza-jarduna: bai idatziz bai ahoz euskara erabiltzen da, kasu askotan ia % 90etik gora.

Daturik baxuenak sektore publikoaren eta pribatuaren arteko harremanetan dauzkagu, idatzizko harremanetan bi kasuetan.

Prestakuntzan ere datu baxuagoak daude ohikoak baino, eta eskaintzarekin du zerikusia. Prestakuntza-eskaintza ez da erabat euskarazkoa oraindik (batez ere beste erakundeek eskainitakoa), eta langileek ere joera dute gaztelaniazko prestakuntzetan parte hartzeko.

2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK		
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	94,49
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	91,75
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	89,49
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	100
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizios abiatutako prozedura administratiboen barne-izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	88,5
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	100
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	100
2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK		
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	88,41
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	58,5
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	75,82
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak	53
2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA		
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	64,12
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	64,12
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	25
2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK		
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	83,98
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	85,48
2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA		
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	91,3

Indarguneak

- ↪ Langileen arteko ahozko erabilera altua da, bai laneko harremanetan, bai atsedeen-garaian.
- ↪ Zarauzko Udalean euskara da ohiko hizkuntza.
- ↪ Aplikazio informatikoen erabilera dela eta, irizpidea argia da: langileei euskarazko bertsioak instalatzen zaizkie.

Hobetzekoak

- ↪ Datuei erreparatuta, oso txikia bada ere, ahozko harremanetan atsedeen-garaian gaztelaniara jotzeko joera txiki bat nabarmentzen da. Ez da kezkarria, baina Udalera langile berriak etorriko direnez, komeni da datu horri jarraipena egitea.
- ↪ Sektore publikoarekiko harremanetan erabakiak hartu behar dira, eta hizkuntza-irizpideetan zehaztutakoa zorrotz jarraitu, entitate publikoekiko harremanetan euskaraz sustatzeko. Zailtasunak daude zenbait entitatearekin euskaraz jarduteko, haietan ez dagoelako gaitasunik.
- ↪ Sektore pribatuarekin ere egokia litzateke harremanak, Udaletik hasten direnean, euskaraz izan daitezen sustatzea.
- ↪ Oraindik ere elebitasunera jotzeko joera dago, eta sarritan bi hizkuntzetan egiten dira euskaraz bakarrik egin daitezkeen dokumentuak. Erabakiak hartu behar dira, zer egin euskaraz, zer bi hizkuntzetan, eta noiz.
- ↪ Prestakuntzari dagokionez, prestakuntza-planik ez dago. Kanpoko ikastaroen eskaintza handiagoa da gaztelaniaz, euskaraz baino. Jarraipen zehatzagoa egin behar da, eta langileak prestakuntza euskaraz jasotzera animatu.
- ↪ Legeak eta testu juridikoak askotan gaztelaniaz egoten dira, eta euskarazko bertsio eguneraturik ez da izaten. Horrek zaildu egiten du euskaraz lan egitea. Erabakiak hartu beharra.
- ↪ Eredu edo txantiloiei gehiago sortzea ondo legoke, adibidez, dirulaguntzetako memoriak.
- ↪ Aplikazio informatikoen erabilerari dagokionez, gertatzen diren intzidentzia edo gorabeheren jarraipena egin behar da (*TEAMs, Langileen ataria, Eurocop, Nominen aplikazioa...*)

5. ONDORIO NAGUSIAK

- ↪ Zarauzko Udalean langileen ezagutza-maila altua da, eta etorkizunean ere bermatuta egongo da langileen hizkuntza-gaitasuna. Zerbitzuari begira, garrantzitsua izango da tresneriak zerbitzua euskaraz eskaintzeko baldintzak betetzea: euskara lehenetsita egotea; erraztasunak ematea harremana euskaraz nahi duten herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko; hizkera egokia eta ulerterraza erabiltzea; langileek jarrera proaktiboa izatea eta herritarrei euskara erabiltzeko eskaintza aktiboa egitea. Horretarako, hizkuntza-estrategiez jabetzeko ekimenak egitea aurreikusten da.
- ↪ Euskaraz sortzeko baliabideak eskaintzen jarraitzea lehentasun bat izango da VII. Plangintzaldian ere. Langileek euskaraz idazteko erraztasuna lortzea da azken helburua eta erosotasunez jardutea. Horretarako, garrantzitsua izango da laneko prestakuntza euskaraz izatea, baita ohiko lan-tresnak ere euskaraz izatea. Teknologia berriek eskaintzen dituzten onurak kontuan izatea ere baliabide garrantzitsua izan daiteke erabileran aurrera egiteko.
- ↪ Kudeaketari, Lidergoari eta Erabilera Planari jarraipena egiteko prozedura zehaztea. Departamentu bakoitzak bere helburuak izatea eta autonomiaz aurrera eramatea izango da Plangintzaldi berriaren erronka nagusia. Horregatik, lan egingo da prozesuan hobekuntzak txertatzeko (jarraipena, etab).

6. DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA ETA EUSKARAZKO ADMINISTRAZIO-UNITATEAK

19/2024ko Dekretuaren 25. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da, honako formula honen bidez: euskaldunak + (ia euskaldunak/2). Horren baitan, VII. Plangintzaldi honetan, hauxe da Zarauzko Udalak nahitaez bete beharreko indizea: % 79.95, 2021. urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

19/2024 Dekretuko 17. artikuluko 6. puntuaren arabera, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu plan estrategikoan. Euskarazko administrazio-unitateak izateko bete beharreko baldintza:

- Lanpostuen % 80k (arduradunak barne) egiaztatuta edukitzea lanpostu bakoitzaren gutxieneko hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa.

Kontuan izanda Zarauzko Udaleko departamentu guztietan lanpostuen % 95ek egiaztatuta dutela dagokien hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa, departamentu guztiak izango dira euskarazko administrazio-unitate. Unitate eta lanpostu horietan, euskara izango da zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Hau da, euskara izango da agirien sorburu-hizkuntza eta herritarrekin erabiliko den lehen hizkuntza, bai jendaurreko harremanetan bai unitatearen gainerako zereginetan ere.

7. VII. PLANGINTZALDIKO OINARRIAK

MISIOA

Zarauzko Udala euskararen normalizazioan eredugarri eta eragile izatea:

- ↪ Zarauzko Udala euskararen arnasmune izango da: euskara da bertako ohiko lan-hizkuntza bai ahoz eta bai idatziz.
- ↪ Euskara erabiltzeko eragile aktiboa izango da harreman guztietan.

BALIOAK

- ↪ Adostua eragile guztiekin
- ↪ Parte-hartzailea
- ↪ Zehar-lerro bat izango da

ERRONKA NAGUSIAK

- **Herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan euskara hautatzea eta gehiago erabiltzea.** Lehenengo hitzaz harago, udal langileek eta udal zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek, oro har, jarrera proaktiboa izatea herritarrekin harremanak euskaraz izateko, beti ere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuz.
- **Lan-harremanak euskaraz izaten jarraitzeko neurriak finkatzea, euskaraz egin daitekeena euskaraz egitea, eta elebitasuna gainditzea.** Baliabide egokiak eskaintzea (prestakuntza, tresnak...) langileek euskaraz egin dezaten.
- **Erabilera-plana kudeatzeko sistema osatzea eta egonkortzea:** langileak eta arduradun politikoak planeko helburuetan inplikatzeko, eredu garriak izatea, eta jarraipena egiteko erremintak eskaintzea.

LAN-ILDOAK

Aurretik aipatutako erronketara gerturatzeko 3 erronka ditu plan estrategiko honek. Hauek dira erronkak eta honela gurutzatzen dira:

ERRONKAK	HELBURUAK
HERRITARREK UDALAREKIN DITUZTEN HARREMANETAN EUSKARA HAUTATZEA ETA GEHIAGO ERABILTZEA	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Langileekin hizkuntza-estrategiak lantzea herritarrek euskara gehiago erabiltzeko ↪ Udal zerbitzu guztiak euskaraz izango direla bermatzea ↪ Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak aztertzea ↪ Herritarrak sentibilizatu eta motibatzea euskara hautatzeko ↪ Hizkera erraz eta egokia erabiltzea. Kalitatea. ↪ Planaren zaintza, elkarrekin hobetzeko ↪ Euskaraz harremana izan nahi duten herritarren kopurua handitzea
LAN-HARREMANAK EUSKARAZ IZATEN JARRAITZEKO NEURRIAK FINKATZEA, EUSKARAZ EGIN DAITEKEENA EUSKARAZ EGITEA, ETA ELEBITASUNA GAINDITZEA	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Langile berriei udalaren hizkuntza-irizpideak jakinaraztea ↪ Baliabide egokiak euskaraz eskaintzea langileei (informatika, prestakuntza) ↪ Barne-dokumentuetan euskarazko produkzioa areagotzea ↪ Langileen motibazioa elikatzea

ERRONKAK	HELBURUAK
	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Beste administrazioekin euskaraz jarduteko neurriak hartzea (aukeratu nondik hasi) ↪ Kanpo-harremanetan, entitate pribatu eta hornitzaileekin harremana euskaraz izateko neurriak aztertzea
ERABILERA-PLANA KUDEATZEKO SISTEMA OSATZEA ETA EGONKORTZEA	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Langileak erabilera-planean inplikatzeko ↪ Ordezkaritza politikoa erabilera-planean inplikatzeko ↪ Kontratazioaren jarraipena egitea ↪ Hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzea

8. ZARAUZKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA. VII PLANGINTZALDIA 2023-2027

Jarraian, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027 zehazten da (VII. Plangintzaldikoa), bai eta urtez urte landuko diren helburuak eta ekintzak ere.

Eusko Jaurlaritzak proposatutako SAREGIN aplikazio informatikoa erabili da datuak ustiatzeko. Tresna horren bitartez, plangintzaldi bukaerako prospekzioa ere egin da. Beraz, jarraian aurkezten den taulan agerian jartzen dira datu guztiak, egoera orokorra, ardatzen egoera eta adierazle bakoitzarena.

Kodea	PLAN ESTRATEGIKOA	Egoera	Aurrei.	ALDEA
0	ZARAUZKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA, 2023-2027	% 81,0	% 91,5	% 10,5
1	KUDEAKETA	% 69,2	% 87,8	% 18,6
1.0.1	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	% 75,0	% 100	% 25,0
1.0.1.1	Erakundeak sistema egituratua osatu du plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko <ul style="list-style-type: none"> ↳ Planaren dinamizazioan lan egingo duen taldea eratu: Euskara Taldea ↳ Kudeaketa-planean begiz jotako proiektuak kudeatzeko lantaldea(k) eratu 	% 75,0	% 100	% 25,0
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipenean hobetu behar da, jarraipena egiteko sistema eratu behar da. - Planaren betetze-maila neurtzeko auditoriak egin departamentu jakin batzuetan. - BIKAIN kanpo-ebaluazioa plangintzaldiaren azken urtean 	% 75,0	% 100	% 25,0
1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	% 95,0	% 100	% 5,0
1.0.2	LIDERGOA	% 73,5	% 92,5	% 19,0
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten. <ul style="list-style-type: none"> - Arduradun politikoak ahalduntzeko saioak antolatu - Diskurtsoa landu, gaika eta kolektiboka 	% 92,0	% 100	% 8,0
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. <ul style="list-style-type: none"> - Erabilera-planaren jarraipen-batzordea osatu - Lantalde bereziak abian jarri bereziki landu nahi diren gaien arabera 	% 75,0	% 100	% 25,0
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan. <ul style="list-style-type: none"> ↳ Urtean bi bilera egingo dira jarraipenerako 	% 50,0	% 75	% 25,0

- ↪ Departamentu bakoitzeko arduraduna bere lankideekin elkartuko da datuen bilakaera aztertzeko eta hobekuntzak aztertzeko.

1.0.3	LANGILEAK	% 85,0	% 91,5	% 6,5
1.0.3.7	Langileei ematen zaie erakundeko plan estrategikoari, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 63,0	% 75	% 12,0
	- Planaren berri ematea une oro, komunikazioa lantzea			
	- Harrera linguistikoa egitea langile berriei			
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	% 94,0	% 100	% 6,0
	- Jarraipena egin			
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	% 95,0	% 95	% 0,0
	- Jarraipena egitea auditoria bidez			
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	% 95,0	% 100	% 5,0
	- Parte-hartzea % 60tik gorakoa izatea			
	- Erabilera-planaren jarraipen batzordea osatzea			
	- Lantalde bereziak abian jarri			
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	% 82,0	% 100	% 18,0
	- Langileen gogobetetzea planeko ekintzetan % 80tik gorakoa izatea			
	- Balorazioa egin			
1.0.4	HIZKUNTZA-GAITASUNA	% 90,0	% 100	% 10,0
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	% 90,0	% 100	% 10,0
	- Trebakuntza eskaintzea, langileen beharren arabera			
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	% 85,0	% 100	% 15,0
	- Trebakuntza eskaintzea, langileen beharren arabera			
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	% 95,0	% 100	% 5,0
	- Trebakuntza eskaintzea, beharren arabera			
1.0.5	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	% 67,5	% 92,5	% 25,0
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritarrei eta gainerako interes-taldeei.	% 75,0	% 100	% 25,0
	- Herritarrei Udalaren asmoen berri ematea			

1.0.5.16	Erakundeak parte hartzen du beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzekeo ekimenetan - Udalekin eta antzeko foroetan parte hartzea	% 50,0	% 75	% 25,0
1.0.6	HIZKUNTZA-KLAUSULAK	% 43,8	% 62,5	% 18,7
1.0.6.17	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira. - Prozedura betetzea kontratu-mota guztietan (irekiak, negoziatuak, txikiak...) (ESKUA)	% 100,0	% 100	% 0,0
1.0.6.18	Dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira - Prozedura betetzea dirulaguntzetarako (ESKUA)	% 100,0	% 100	% 0,0
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetao hizkuntza-klausulen betetze-mailari - Kontratuaren arduradunak jarraipena egitea - Zerbitzu-kontratu nagusienak identifikatu eta jarraipenerako protokoloa adostu departamentu sustatzaileekin eta kontratazio arloarekin	% 25,0	% 50	% 25,0
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. - Dirulaguntzaren arduradunak jarraipena egitea: jarraipenerako protokoloa adostu departamentu sustatzaileekin	% 25,0	% 50	% 25,0
2	ERABILERA	% 86,1	% 93,1	% 7,0
2.1	ZERBITZU-HIZKUNTZA	% 97,6	% 92	% -5,6
2.1.1	IRUDIA	% 100,0	% 100	% 0,0
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude. - Jarraipena egin	% 100,0	% 100	% 0,0
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude - Jarraipena egin	% 100,0	% 100	% 0,0
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan. - Jarraipena egin	% 100,0	% 100	% 0,0
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak - Jarraipena egin	% 100,0	% 100	% 0,0

2.1.2	HERRITARREKIKO HARREMANAK	% 97,0	% 100	% 3,0
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen			
	- Langileekin hizkuntza-estrategiak lantzea herritarrek euskara gehiago erabiltzeko: estres linguistikoa eta eskaintza aktiboaren kontzeptuak landu	% 95,0	% 100	% 5,0
	- Zailtasunak eta arazoak identifikatu			
	- Udaltzaingoarekin etengabeko prestakuntza eta ahalduntzea hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntzen kudeaketan			
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	% 100,0	% 100	% 0,0
	- Herritar euskaldunari zerbitzua ahoz euskaraz ematea			
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira			
	- Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztietan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea			
	- Hizkuntzaren erabilerari buruzko kezka, zailtasunak jaso. Prozedura idatzi eta jarraipena egiteko modua zehaztu (departamentuekin).	% 90,0	% 100	% 10,0
	- Talde jakinentzako ikastaroetan hizkuntzaren gaia lantzeko estrategiak adostu departamentuekin.			
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota bi hizkuntzatan bidaltzen zaizkie dokumentuak	% 100,0	% 100	% 0,0
	- Udal zerbitzu guztiak euskaraz izango direla bermatzea			
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz			
	- Jarraipena egin eta identifikatutako zailtasunak aztertu eta gainditzeko proposamena egin	% 100,0	% 100	% 0,0
	- Erregistroan eta espedienteen kudeaketarako aplikazioan hizkuntza-hautua modu egokian jaso eta bideratu			
2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz			
	- Herritarrak sentsibilizatu eta motibatu euskara hautatzeko: kanpaina zehatzak egin herritarrek euskara hautatu dezaten Udalarekiko harremanetan	% 68,0	% 75	% 7,0
2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz			
	- Herritarrak sentsibilizatu eta motibatu euskara hautatzeko (kanpaina zehatzak)	% 19,0	% 25	% 6,0

- 18 urte bete dituzten herritarrekin kanpaina euskara hautatu dezaten (*ziurtagiri digitalak, diru-kontuak, txartelak, bizuma, unibertsitatea, beka-eskaerak...*)
- Udalak hizkera erraza eta egokia erabiltzen duela bermatzeko ekimenak (estilo liburua)

2.2	LAN-HIZKUNTZA	% 81,1	% 93,5	% 12,4
2.2.1	BARNE-HARREMANAK	% 93,4	% 100	% 6,6
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira <ul style="list-style-type: none"> - Lan-bileretan euskararen erabilera mantendu 	% 95,0	% 100	% 5,0
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da <ul style="list-style-type: none"> - Neurketak / behaketak egin 	% 92,0	% 100	% 8,0
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da <ul style="list-style-type: none"> - Neurketak / behaketak egin (galdetegia datu aitortua) 	% 89,0	% 100	% 11,0
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipena egin (barne-auditoria) 	% 100,0	% 100	% 0,0
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne-izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan. <ul style="list-style-type: none"> - Barne-dokumentuetan euskarazko produkzioa areagotu - Aginte-organoetako dokumentazioaren hizkuntza-kudeaketa Idazkaritzarekin adostu 	% 88,0	% 100	% 12,0
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar. <ul style="list-style-type: none"> - Barne-dokumentuetan euskarazko produkzioa areagotu - Xedapen orokorretan euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatu (HI) 	% 88,0	% 100	% 12,0
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago <ul style="list-style-type: none"> - Jarraipena egin (barne-auditoria) 	% 100,0	% 100	% 0,0
2.2.2	KANPO-HARREMANAK	% 69,0	% 90	% 21,0
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. <ul style="list-style-type: none"> - Beste administrazioekin euskaraz jarduteko neurriak hartzea: - Irizpide garbiak izan eta ahaldundu, - Zailtasunak non dauden identifikatu - Protokolo bat egin, intzidentziak jaso eta dagokion administrazioari jakinarazi. 	% 88,0	% 100	% 12,0
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota bi hizkuntzetan bidaltzen zaizkie dokumentuak. <ul style="list-style-type: none"> - Beste administrazioekin euskaraz jarduteko neurriak hartzea: 	% 58,0	% 75	% 17,0

	- Irizpide garbiak izan eta ahaldundu			
	- Zailtasunak non dauden identifikatu			
	- Protokolo bat egin, intzidentziak jaso eta dagokion administrazioari jakinarazi.			
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	% 76,0	% 100	% 24,0
	- Entitate pribatu eta hornitzaileekin harremanak euskaraz izateko neurriak aztertu			
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo bi hizkuntzetan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 53,0	% 100	% 47,0
	- Entitate pribatu eta hornitzaileekin harremanak euskaraz izateko neurriak aztertu			
2.2.3	PRESTAKUNTZA	% 56,2	% 70	% 13,8
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.			
	- Neurriak hartzea prestakuntza euskaraz izateko	% 64,0	% 75	% 11,0
	- Prestakuntza-planean hizkuntza-irizpideak txertatu			
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.			
	- Aukera berdinean, 3 eta 4. hizkuntza-eskakizuna zehaztuta duten langileek prestakuntza euskaraz jasotzea	% 64,0	% 75	% 11,0
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.			
	- Hizkuntza-trebakuntza eskaintzea langileei. Itzultzaileekin prestakuntza motak zehaztu	% 25,0	% 50	% 25,0
	- Komunikazio etengabea: euskararen txokoa			
	- Motibazioari buruzko saioak antolatu (TELP)			
2.2.4	BALIABIDE INFORMATIKOAK	% 84,5	% 100	% 15,5
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.			
	- Baliabide egokiak eskaintzea langileei.	% 84,0	% 100	% 16,0
	- Aplikazio informatikoen inbentarioa egin eta eguneratuta mantendu			
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.			
	- Langileen motibazioa elikatzea.	% 85,0	% 100	% 15,0
2.2.5	SORTZE-HIZKUNTZA	% 91,0	% 100	% 9,0
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.			
	- Barne-dokumentuetan euskarazko produkzioaren alde egin.	% 91,0	% 100	% 9,0

9. AGINTE-PANELA

Irudian, Zarauzko Udalak Euskararen erabilera sustatzeko planaren aginte-panela dago. Bertan egungo egoera, Plangintzaldiaren bukaeran aurreikusten dena eta bien arteko aldea adierazten da ehunekotan eta arloz arlo.

BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiriari dagokionez, **105 puntuko aldea** dago egungo egoera eta Plangintzaldi bukaeran aurreikusten denaren artean. Aurreikusitako plana aurrera eramanez gero, maila altua lortzeko moduan egongo litzateke Zarauzko Udala.

ARDATZAK ETA ARLOAK	NEURTZEKO MODUA	HELBURUEN EGOERA		
		EGOERA	AUREIKUSITAKOA	ALDEA
PLAN ESTRATEGIKOA		81	91,5	10,5
KUDEAKETA		69,2	87,8	18,6
Euskararen kudeaketa orokorra	Balorazioa	75	100	25
Langileak	Balorazioa	85	91,5	6,5
Hizkuntza-gaitasuna	Balorazioa	90	100	10
Erabilera sustatzeko estrategien komunikazioa	Inpaktua, irismena	67,5	92,5	25
Hizkuntza-klausulak	Txertatutako Hizkuntza klausulak /betetze maila	43,8	62,5	18,7
ERABILERA		86,1	93,1	7
ZERBITZU HIZKUNTZA		97,6	92	5,6
Irudia	Intzidentzia kopurua / zuzendutako intzidentziak	100	100	0
Herritarrekiko harremanak	Euskaraz zuzentzen diren herritarren kop.	97	100	3
LAN HIZKUNTZA		81,8	93,5	12,4
Lan-harremanak	Auditoriaren emaitza	93,4	100	6,6
Kanpo-harremanak	Auditoriaren emaitza	69	90	21
Prestakuntza	Auditoriaren emaitza	56,2	70	13,8
Baliabide informatikoak	Auditoriaren emaitza	84,5	100	15,5
Sortze-hizkuntza	Auditoriaren emaitza	91	100	9

SAREGIN tresnatik moldatutako panela

10. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK (laburpen taula)

Zarauzko Udalak bere hizkuntza-irizpideak berritu ditu VII. Plangintzaldiak ezarri duen marko berrira egokituta. Aldaketa markatu dute bereziki Plangintzaldi batetik besterako jauziak eta marko metodologikoak ekarritako aldaketek, KEMEN markoak eta 19/2024 Dekretuak eraginda.

OROKORRA	
Udal ordezkariak	Eredugarriak izango dira hizkuntza-irizpideekin.
Langileak	Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu, eta Udalaren hizkuntza-irizpideak beteko dituzte.
Hizkuntza-gaitasuna	Lanpostu guztiek hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data ezarrita izango dute.
Sortze-hizkuntza	Langileek idatzi oro euskaraz sortuko dute.
Hautaprobak	Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egingo du.
Hizkuntza-klausulak	Udal kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta baimenetan beharrezkoak diren hizkuntza-klausulak sartuko dira.
Irudia	Erakundearen errotulu, euskarri eta ahozko mezuak euskaraz egingo dira.
Argitalpenak, iragarkiak, publizitatea, agerraldi instituzionalak	Euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Webgunea eta sare sozialak	Euskara erabiliko da.
HERRITARREKIN	
Herritarrekin ahozko harremana	Lehenengo hitza euskaraz egingo da eta euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo zaie herritarrei ahoz.
Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak	Euskaraz egingo dira, eta euskaraz ez dakitenei laguntza eskainiko zaie.
Inprimakiak	Agiriak euskaraz eta bi hizkuntzetan izango ditu Udalak
Jakinarazpenak eta baimenak	Euskara erabiliko da
Komunikazio elebiduna	Udalak komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egiten duenean, euskarak izango du beti lehentasuna, eta nabarmenduta erabiliko da.
UDAL BARNEKO HARREMANAK	
Lankideen arteko ahozko harremana	Euskaraz izango da.
Hizkuntza paisaia	Errotulu, ohar, zigilu, ordenagailuko karpetak, noizbehinkako oharrak... euskaraz idatziko dira.
Idatzizko komunikazioa	Erakunde barruko idatziak euskaraz egingo dira: memoria, txosten, zirkular, jakinarazpen, barne-izapideak...
Aginte-organoetako dokumentazioa	Udalbatzarrak: dokumentazioa bi hizkuntzetan. Tokiko Gobernu Batzarra eta dekretuak: euskaraz edo bi hizkuntzetan, hartzailearen arabera. Informazio-batzordeak: euskaraz. Koordinazio-bilerak: euskaraz. Gainerako bileretako dokumentazioa euskaraz
Prozedura administratiboak	Ofizios abian jarritako prozedura administratiboak euskaraz izango dira.
KANPO-HARREMANAK	
Sektore publikoa	EAEko nahiz Nafarroako erakunde publikoekin euskaraz egingo da, bai ahoz, bai idatziz.
Enpresa pribatuak	Udalak euskarazko harremanak sustatuko ditu, bai ahoz, bai idatziz.
PRESTAKUNTZA ETA BALIABIDEAK	
Langileentzako prestakuntza	Udalak antolatutakoak euskaraz izango dira. Beste erakunderen batek antolatutakoetan euskarazkoa hautatuko du.
Lanpostuetako tresna edo aplikazio informatikoak	Euskarazko bertsioak instalatuko dira, eta hala erabiliko dituzte langileek.

11. EGITURA ETA JARRAIPENA

Plan honetako arduradun bakoitzaren funtzioak eta eginbeharrak jasotzen dira atal honetan. Hurrengo azpiegitura eta funtzioak proposatzen dira, orain arteko baliabideak kudeatzeko eta planaren dinamika ziurtatzeko.

Jarraipen Batzordea

Udalaren aginte-organoetan zeharkakotasunez landuko da hizkuntza-kudeaketa, eta hizkuntza-irizpideen jarraipena egiteko elkartuko dira. Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantzaren 31. artikuluari jarraikiz, ordezkariak orekatua izatea bultzatuko da.

- ↪ Arduradun politikoak.
- ↪ Udal langileak.
- ↪ UEMAko hizkuntza-normalizatzailea.
- ↪ Udaleko euskara teknikariak.

Zeregin nagusiak:

- ↪ Udalaren kudeaketan hizkuntza-irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea.
- ↪ Neurri zuzentzaileak proposatzea (behar izanez gero).
- ↪ Erabilera-planaren jarraipena egitea.
- ↪ Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea.
- ↪ Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea.

11.1. Itzulpen-zuzenketa zerbitzua

- ↪ Erabakitako itzulpenen ardura eta ereduaren egokitzapenak.
- ↪ Hizkuntza-aholkularitza eta zuzenketa-zerbitzua.
- ↪ Itzulpenen eta zuzenketen kudeaketa, euskararen erabilera zuzena bermatzeko.

11.2. Euskara Taldea

Departamentuetako arduradun teknikoek eta Euskara Departamentuak osatuko dute. Funtzioei dagokienez, hauek dira egiteko nagusiak

- ↪ Departamentuetan euskara sustatzeko ekimenak bultzatzea eta beharrezkoak diren baliabideak proposatzea
- ↪ Departamentuetan Erabilera Plana hedatzea eta helburuak betetzen ari direla ziurtatzea
- ↪ Hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzea
- ↪ Urtean 2 bilera egitea erabilera-planaren jarraipenerako

11.3. Lantaldeak

VII. Plangintzaldian proiektuak egingo dugu lan, hainbat helburu aurrera eramateko. Proiektuak gauzatzeko, garrantzitsua izango da langileen parte-hartzea. Proiektuan, langile jakin batzuek eta Euskara Departamentuak hartuko dute parte. Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantzaren 31. artikuluari jarraikiz ahalgintzak egingo dira ordezkariak orekatua izateko.

Zeregin nagusiak:

- ↪ Urtean proiektu bat edo bi garatzea, erabilera-planaren alde aurretik zehaztutakoak.

- ↪ Proiektu horien emaitza aurkeztea Jarraipen Batzordeari

11.5 Kanpoko ebaluatzaileak

VII. Plangintzaldian zehar, Zarauzko Udalak sistema hauek erabili ahal izango ditu erabilera-planaren jarraipen eta ebaluaziorako:

- ↪ **Jarraipena departamentuetan:** auditoria bidez ziurtatuko da hizkuntza-irizpideak departamentu guztietan betetzen direla, eta, ondorioz, Zarauzko Udalean. Betetze-mailari jarraipena egiteaz gain, hobekuntzarako ekintza zuzentzaileak ere zehaztuko dira dagokien arduradunekin batera.
- ↪ Udalak kanpo-ebaluazioan oinarritutako **BIKAIN ziurtagiria** eskuratzea jarri du helburuen artean, eta VII. Plangintzaldian zehar eskuratzea izango da helburua.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI)

1. HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN PRINTZIPIO GIDARIAK

Euskararen erabilera normalizatua eta orokorra: Udalaren jardueretan euskara izango da erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, ahoz eta idatziz.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea: herritarrek eskubidea izango dute Udalarekin duten harreman oro haiek hautatutako hizkuntzan izateko; eta, hizkuntza-politika bat jarriko da, herritarren hizkuntza-eskubideetan erabateko berdintasuna lortzeko.

Ekintza positiboaren printzipioa: Udalak hainbat neurri hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabilera kaltetzen duen edozein bereizketa, bazterketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehenespena ere ezabatzeko. Euskararen alde hartzen diren neurri bereziak ez dira hartuko gaztelaniaz aritzen direnak baztertzeko egintzatzat.

Kalitatezko komunikazioa: Zarauzko Udalak kalitatezko komunikazioa sustatu behar du, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian, kontuan hartuta herritarrek eskubidea dutela Udalaren mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko.

Komunikazio telematikoa: Kontuan hartu behar da komunikazio digitala ez dela komunikazio analogikoa dagoen-dagoenean formatu elektronikora eramatea; hori baino askoz gehiago da. Komunikazio digitalak berezko kodeak ditu, bere baliabide estilistikoak, eta horiek guztiak aintzat hartu behar dira komunikazio egokia lortzeko.

Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak abiaraztea: Udalak gero eta gehiago erabiliko du euskara, bai barneko jardueretan, bai kanpora begira egiten direnetan.

Atzerapausorik ez: Aurreko plangintzen aldean, ez da atzerapausorik onartuko hizkuntza-irizpideen ezarpenean.

Euskarak lehentasuna: Euskarari lehentasuna emango zaio, ahozkoan eta idatzizkoan. Bi hizkuntzetan egin behar denean ere, lehentasuna emango zaio euskarari. Euskaraz sortuko da, eta, ahal den guztietan, bereizi egingo dira euskaraz idatzitako testuak eta bi hizkuntzetan idatzitakoak.

Hizkera inklusiboa: Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal ordenantzaren 34. artikuluari jarraikiz, Zarauzko Udalak komunikazio ez sexista eta barneratzailea erabiliko du.

1.1 LEGE OINARRIA

HONAKO LEGE HAUEK HARTU DIRA IRIZPIDEOK EGITEKO OINARRI GISA:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5koa.
- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko

2. KUDEAKETA

2.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Udalaren aginte-organoetan, hizkuntza-kudeaketa zeharkakotasunez landuko da. Eta, hizkuntza-irizpideen jarraipena egiteko, Erabilera Planaren Jarraipen Batzordea osatuko da, honela:

- ✓ Arduradun politikoak.
- ✓ Udal langileak.
- ✓ UEMAko hizkuntza-normalizatzailea.
- ✓ Udaleko euskara teknikariak.

Batzordearen zeregin nagusiak hauek izango dira:

- ✓ Udalaren kudeaketan hizkuntza-irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea.
- ✓ Neurri zuzentzaileak proposatzea (behar izanez gero).
- ✓ Erabilera-planaren jarraipena egitea.
- ✓ Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea.
- ✓ Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea.

2.2 LIDERGOA

Udal ordezkariak

Udalaren hizkuntza-politikaren baitan, udal ordezkariak eredugarriak eta koherenteak izango dira hizkuntza-irizpideekin. Udalarekin harremanetan dauden herritarrekin, beste erakunde publikoekin, entitate pribatuekin eta abarrekin euskararen aldeko jarrera proaktiboa izateaz gain, era proaktiboan hartuko dute parte erabilera-planaren diseinu, garapen eta jarraipenean.

Ordezkeri politikoaren eginkizuna izango da Udalaren jardura guztietan hizkuntza-irizpideak betetzea eta betearaztea.

Hartara, Udalaren kudeaketako aginte-organoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa integratuko da, eta hizkuntza-irizpideak zeharkakotasunez landuko dira. Udalaren jarduera guztietan, jarduera horiek gauzatu aurretik, kontuan hartuko dira hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktore guztiak, eta neurriak hartuko dira hizkuntza-irizpideak betetzeko.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die euskaraz lan egiten duela eta egokia litzatekeela zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izatea.

2.3 LANGILEAK

Udal ordezkarien moduan, langileek ere herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dituzte, eta Udalaren hizkuntza-irizpideak eta erabilera-planak bete.

Era berean, herritarren aurrean jarrera proaktiboa izango dute, eredugarri jokatu; izan ere, Udalean entzuten den hizkuntza ere bada Udalaren irudia.

Udalak erabilera-plan eta hizkuntza-irizpide onartu berriei buruzko informazioa emango die langileei, langileek une oro argi izan dezaten zein den erakundearen bisio eta estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean, eta noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duten lan-jardunean.

Udalean langile berri bat lanean hasten den bakoitzean harrera linguistikoa egingo zaio.

2.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA

2.4.1 Langileak

Udalaren helburua izango da udaleko langile guztiek gaitasuna izatea lana euskaraz egiteko.

Lanpostu-zerrendan dauden lanpostu guztiek jarrita izango dute hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data. Lanpostu berriak sortzeko, derrigorrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari txostena eskatzea hizkuntza-eskakizuna zehazteko.

Udalean edozein lanpostu legez hornitzeko, igarotako derrigortasun-data jarriko zaio dagokion hizkuntza-eskakizunari, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatuta izan dezan.

2.4.2 Aldi baterako langileen kontratazioa

Edozein dela ere egitekoa, aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, Udalak lanpostu-zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza-eskakizunaren pareko euskara-gaitasuna eskatuko dio.

2.4.3 Hautaprobak

Udal lanpostu baterako hautaketa-probarako epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu behar da haien hizkuntza-gaitasuna. Hautaketa-prozesuetan, Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egitea eskatu ahal izango die hautagaiei.

2.4.4 *Hizkuntza-prestakuntza*

Udalak baimenak eta laguntzak emango ditu langile-zerrendako enplegatuek hizkuntza-prestakuntza egokia lor dezaten.

Derrigor bete beharreko hizkuntza-eskakizunen prestakuntza-beharrei aurre egingo zaie lehenengo. Hori dela-eta, lehenetsuna emango zaie lanpostuan derrigortasun-data ezarrita duten langileen eskariei, karrerako nahiz behin-behineko funtzionario izan. Eta, Udal jardueran, kanpora zein barrura begira, hizkuntza-erabilera eta eragin handiena duten lanpostuak lehenetsiko dira.

Hizkuntza-prestakuntza planifikatu egingo da, udal langile nahiz ordezkariak gaitasuna izan dezaten haien eguneroko lan-harremanetan euskaraz erraztasun osoz jarduteko.

2.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostu eta helburuak jarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurri eta baliabideak ere.

Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko daukan estrategia eta helburuak komunikatuko dizkie herritarrei eta gainerako interes-taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.), eta estrategia hori gauzatzeko jarriko diren tresnen eta baliabideen berri ere emango die.

2.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Zarauzko Udalak egiten dituen kontratuetan beharrezkoak diren klausulak sartuko ditu, toki-erakundeak exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ditzaten herritarrek kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Hizkuntza-baldintza horien bidez Udalak argi adieraziko du enpresa kontratatuak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituela eta Udalarekin euskaraz aritu beharko duela —pleguen bidez, horiek behar direnean; edo, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnean—.

Hizkuntza-klausulak Euskara Departamentuak jarriko ditu, kasuan kasuko kontratazio-organoarekin elkarlanean.

2.6.1 *Zerbitzu-enpresak*

Zerbitzu-enpresa berriekin kontratua sinatzean euskararen baldintza sartuko da, eta Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko dituela adieraziko da.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

2.6.2 *Hornitzaileak*

Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketa eskatzeko baldintzak adosten direnean (aurrekontua, faktura, idatzizko harremana...), euskararen inguruko baldintzak ere zehaztuko dira, horien artean enpresa Udalarekin euskaraz aritzea. Jarritako baldintzen betetze-mailari jarraipena egingo zaio.

2.6.3 Obra-kontratuak

Obra-kontratuetan ere hizkuntza-baldintzak txertatuko dira, eta enpresak Udalarekin izango duen harremana euskaraz izan dadin bermatuko da. Obrak irauten duen bitartean herritarrekin izan dezaketen harremanean herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko baldintzak jarriko dira, eta bereziki obraren ondorioz sortutako hizkuntza-paisaia euskaraz izateko baldintzak.

2.6.4 Kontratazio administratiboak

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

1. Enpresa kontratistak, prestazioa ematean, hizkuntza-araudia bete beharko du, bai eta kontratuaren agirietan adierazitako klausula linguistikoak ere. Hizkuntza-baldintzei dagokienez, enpresak egiaztatu beharko du prestazioa eman dezakeela prestazioaren administrazio titularrari exijitzen zaizkion baldintza beretan. Horretarako, hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori jasota egongo da kontratuko administrazio-klausulen agirietan.

Eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatuileari eskatuko zaio identifikatu dezala zein langilek jardungo duten kontratua aurrera eramateko beharrezkoak diren lanpostuetan. Langile horien hizkuntza-maila aipatu beharko du, eta, hala badagokio, maila hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

2. Zerbitzua ematen duenean, kontratistak ahaleginak egingo ditu herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eskaintza aktiboa sustatuz. Edozein kasutan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan arituz.
3. Kontratistak nagusiki euskaraz idatziko ditu zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta beste idazki batzuk, eta bi hizkuntzetan idatzi behar direnean euskara lehenetsiko du.
4. Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio. Hizkuntza-baldintzak urratzen badira, araudiak kontratua ez betetzeari buruz dioena aplikatuko da.
5. Udalak edota udal erakundeek hirugarrenei eskatzen dizkieten azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak behintzat euskaraz idatzita egotea eskatuko dute. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren kontratuen administrazio-klausulen agirietan.

2.6.5 Hitzarmenak eta dirulaguntzak

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Udalak eta udal erakundeek pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen dituzten hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenetan eta dirulaguntzen oinarrietan hizkuntza-klausulak sartuko dira, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko, ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN jasotakoaren arabera.

- Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo dira. Mezu idatziak eta ahozko komunikazioak gutxienez euskaraz egingo dira, eta, bi hizkuntzetan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.
- Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan.
- Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

Hizkuntza-baldintzak betetzetik salbuetsita egon daitezke dirulaguntza sozialak, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo izaera kontuan hartuta hizkuntza-baldintza horiek betetzea ezinezkoa bada, edo ez betetzea erabat justifikatuta badago.

2.6.6 Baimenak

Hirigintzako baimenak /lizentziak

Udalak euskara erabiltzeko baldintzak txertatuko ditu hirigintzako baimenetan; zehazki, kale eta bide publikoetako iragarki, errotulu, ohar, seinale, eta abarretan.

Jabari publikoaren erabilera pribatiborako baimenetan, berriz (terrazak, udal eraikinak...), klausula egokiak txertatuko ditu Udalak, erabiltzaileei nahiz kontsumitzaileei ematen zaizkien informazio eta segurtasun-abisuak euskaraz komunika daitezen. Jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, seinale eta abarrak euskaraz egotea eskatuko du Udalak.

Irekitzeko baimenak

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedienteetan, Udalak errotulazioa euskaraz jar dezatela gomendatuko die eskatzaileei, eta dauden laguntzen berri emango die.

Udal instalazioak erabiltzeko baimenak

Edozein delarik ere ekitaldia, Udalaren jabetzako instalazioak erabiltzeko baimena behar denean, Udalak euskara erabiltzeko baldintzak txertatuko ditu, eta laguntza eskainiko du euskara erabil dadin. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak (kartelak, iragarkiak, oharrak...) euskaraz egingo dira. Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntza-baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen neurriak hartuko ditu hizkuntza-araudia bete dadin.

Postu eta ikuskizunak

Postuak jarri eta ikuskizunak egiteko baimenak ematean, Udalak euskara erabiltzeko baldintzak txertatuko ditu, JENDAURREKO IKUSKIZUNAK, JOLAS JARDUERAK, JAIK, KIROL ETA KULTUR EKITALDIAK, AZOKAK ETA BESTELAKOAK EGITEAN BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZAN jasotakoaren arabera.

3. ERABILERA. ZERBITZU-HIZKUNTZA

3.1 IRUDIA

Udalaren eta udal erakundeen irudi korporatiboaren elementuak eta organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein dela ere.

3.1.1 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak

Udalak, bere instalazioetan, euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala egitea beharrezkoa iruditzen zaionean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Irudi baten bidez ulertzeko moduko mezuak piktogramaz adieraziko dira: komunak, segurtasun-oharrak (irteera, suitzalgailua...).

Euskarriak

Gutun-azalak, orriak eta abarrak euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma-irudiak ere euskaraz egongo dira.

Udal ibilgailu, jantzi, altzari eta bestelako elementuak euskaraz errotulatuko dira.

Ahozko mezuak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak euskaraz emango dira (igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak, ikus-entzunezkoak...).

3.1.2 Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea

Udalaren eta haren mendeko erakundeen idazki orotan euskara erabiliko da. Udalerrian zabaldu beharreko agirietan (bandoak, oharrak...) euskara erabiliko da. Iragarki ofizialetan euskara erabiliko da.

Arreta berezia jarriko da udal agirietan hizkuntza-kalitatea zaintzeko, eta komunikagarritasuna errazteko. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiri oroien hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriei argiak eta ulergarriak izan behar dute.

Argitalpenei dagokienez, irizpide orokorra da argitalpenetan euskara erabiltzea.

Argitalpenak beste hizkuntza batzuetan ere plazaratu behar direnean, euskara lehenetsiko da (kokapenean eta neurrian), eta ondorengo hurrenkerari jarraituko zaio: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta bestelakoak.

Publizitate-kanpainak kontratatzen direnean bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak izatea, eta ez gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa. Kontrataziorako klausulen pleguetan berariaz jasoko da baldintza hori.

3.1.3 Agerraldi instituzionalak

Ekitaldi publikoetan edota prentsurrekoetan Udalaren izenean aritzen den edozeinek euskarazko gaitasun egokia izango du, eta, euskaraz egingo du ekitaldia edo prentsurrekoa. Ulertzen ez dutenentzat ulertzeko bitartekoak jarriko dira.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak euskaraz egingo dira.

3.1.4 Webgunea eta sare sozialak

Webgunea

Webgunea euskaraz irekiko da, eta euskaraz nabigatzen ari denari euskaraz bistaratuko zaio informazio guztia.

Web-orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak eduki behar dituzte. Webgunea beste hizkuntza batean erabiltzen bada, Internet bidez lortzen diren idazki guztiek eta online tramiteek herritarrentzako agirien hizkuntza-irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarrietara eramango gaituztela bermatuko da.

Sare sozialak

Udalak euskara erabiliko du sare sozialetan.

Mezuak hizkuntza bietan argitaratzen direnean, lehenetsia emango zaio euskarazko argitalpenari; horretarako, lehenik gaztelaniaz argitaratuko da, eta jarraian, euskaraz. Sare sozial batean hari bat irekiz gero, alderantziz izango da, lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz, hariaren lehenengo agerraldia euskarazkoa izan dadin.

Erabiltzaileei erantzutean, haiek erabilitako hizkuntza kontuan hartuko da, eta euskara hutsez edo bi hizkuntzetan erantzungo da. Argazki-oinak, traolak eta gainerakoak euskaraz izango dira. Sare sozialetan kontu berri bat sortu behar denean, euskarazko izena jarriko zaio.

Kanpo-loturak edo beste orrialderen bateko gaztelaniazko informazioa profileko “horman” txertatzen direnean, horiei buruzko iruzkinak euskaraz ere egingo dira.

Mugikorretarako APPak

Udalaren aplikazioak euskaraz egongo dira, eta euskara lehenetsita egongo da aplikazioa instalatzeko hizkuntza modura. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri guztiak euskaraz bidaliko dira.

Logoak eta markak

Udalak egiten dituen markak eta sortzen dituen logoak euskaraz izango dira.

3.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK

3.2.1 Herritarrekin ahozko harremana

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean diharduenak lehenengo hitza euskaraz egingo du, eta, herritarraren adostasunarekin, ahaleginak egingo ditu elkarrizketa euskaraz izan dadin, eskaintza aktiboa sustatuz. Edozein kasutan, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira, eta herritarrari berak aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaio.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak).

3.2.2 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak

Udalak antolatzen dituen ekitaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta abarrak euskaraz izango dira, eta Udalak baliabideak eskainiko ditu euskaraz ez dakitenentzat (aldibereko itzulpena, xuxurlaria...).

3.2.3 Herritarrekin idatzizko harremanak

Herritarrentzako dokumentuak

Inprimakiak

Udalak beti izango ditu euskarazko eta bi hizkuntzetako agiriak (inprimakiak...), herritarrei emateko. Beraz, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak euskarazkoa edo bi hizkuntzetakoa emango dio, herritarraren eskaeraren arabera.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan ere, Udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, gaztelania hutsezko inprimakiren bat etorritz gero, Udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Ekitaldi publikoetan erabiltzen diren idatzizko euskarriak, kartelak, izen-emate orriak, balorazio-orriak nahiz bestelakoak euskaraz egongo dira.

Jakinarazpenak, baimenak...

Herritarrei bidaltzen zaizkien agirietan euskara erabiliko da (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak...).

Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskara hutsean erantzungo zaie idatziz.

Administrazio-prozedurari lotutako dokumentuak

Prozedura administratiboak euskaraz tramitatuko dira. Nolanahi ere, dokumentuak nahiz lekukotasunak interesdunak aukeratutako hizkuntzan bidaliko dira.

Komunikazio elebiduna

Udalak komunikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egin behar duenean, euskara nabarmendu egingo du. Komunikazio elebidunetan euskara lehenesteko neurriak:

- Kokapena: euskara goian eta gaztelania behean jar daiteke. Zutabeetan jartzen bada, ezkerrekoa euskaraz. Orriak badira, berriz, euskaraz eskuinekoa.
- Tipografia: letra-tipoa edo tamaina erabil daitezke euskarazko testua nabarmentzeko.
- Gaztelaniaz euskaraz jarritakoaren laburpena jar daiteke, edota itzulpena bideratuko duen lotura edo QRa.

4. ERABILERA. LAN-HIZKUNTZA

4.1 BARNE-HARREMANAK

4.1.1 Lankideen arteko ahozko harremana

Langileen arteko harremana euskaraz izango da lan-orduetan.

Langileak eredugarri izango dira euskararen erabileran, udaletxean entzuten den hizkuntza ere Udalaren irudia baita.

4.1.2 Lan-bilerak

Udal bileretako hizkuntza euskara izango da.

4.1.3 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Irudi baten bidez ulertzeko moduko mezuak piktogramaz adieraziko dira: komunak, segurtasun-oharrak (irteera, su-iltzalgailua...).

Zigiluak euskaraz egongo dira.

Ordenagailuan dauden karpetak euskaraz izendatuko dira.

Apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak eta noizbehinkako oharrak euskaraz idatziko dira.

4.1.4 Erakunde barruko idatzizko lan-harremanak

Langileen arteko idatzizko lan-harremanak euskaraz izango dira.

Erakunde barruko idatziak euskaraz egingo dira (memoriak, azterketak, txostenak, zirriborroak...).

Iragarki-tauletako barne-oharrak, zirkularrak, jakinarazpenak eta antzekoak euskaraz egongo dira.

Langileek dauzkaten baliabideak (aplikazioak, inprimakiak...) euskaraz lan egiteko prestatuta egongo dira.

Udalak giza baliabideen kudeaketarako erabiltzen dituen dokumentu, aplikazio eta euskarriak euskaraz izango dira (nominak, kontratuak, baimenak, ziurtagiriak, komunikazioak, ikastaro eta otordu ordainketak, langileen ataria, intraneta...).

4.1.5 Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

Prozedura administratiboak euskaraz tramitatuko ditu Udalak. Beti ere, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz, interesdunekin izan beharreko harreman guztietan.

4.1.6 Udal organoetako dokumentazioa

- **Osoko Bilkuretako** dokumentazioa (akordio proposamenak, irizpenak, aktak) **bi hizkuntzetan** egingo dira.
- **Tokiko Gobernu Batzarreko** eta **Dekretuetako** dokumentazioa **euskaraz** edo **bi hizkuntzetan** izango da, hartzailearen arabera.
- **Informazio-batzordeetako** dokumentazioa: **euskaraz** izango da.
- **Koordinazio-batzordeetako** dokumentazioa: **euskaraz** izango da.
- Gainerako bileretako deialdi, akta, aurkezpen-material eta txostenak: **euskaraz** egingo dira.

4.1.7 Eskritura publikoak

Udala eskritura publikoak euskaraz idatzi eta erregistratzen saiatuko da.

4.1.8 Xedapen orokorrak

Udalak euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatuko du xedapen orokorretan eta plan estrategikoetan.

4.2 KANPO-HARREMANAK

4.2.1 Sektore publikoko erakundeekin harremanak

Zarauzko Udalak euskarazko harremanak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat. Zailtasunak dauden kasuetan, harremanak euskaraz izateko neurriak hartzea eskatuko dio dagokion administrazioari.

Zarauzko Udalak Euskal Autonomia Erkidegotik zein Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko administrazioei bidalitako komunikazioetan euskara erabiliko du, gure hizkuntza propioaren presentzia agerian uzteko.

4.2.2 Entitate pribatuekin harremana

Zarauzko Udalak entitate pribatuekin euskarazko harremanak bultzatuko ditu, ahoz eta idatziz.

4.3 PRESTAKUNTZA

4.3.1 Langileentzako prestakuntza

Udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izango dira. Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatutakoa prestakuntza-ekintzetara joan behar badute, euskarazkoa hautatuko dute.

Udal langileek kanpo-erakunderen batek antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartu behar badute, Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du, zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarritz.

4.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

Udalak aplikazio informatikoen euskarazko bertsioak instalatuko ditu, eta langileek hala erabiliko dituzte.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izango da lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

4.5 SORTZE-HIZKUNTZA

Zarauzko Udaleko langileek idatzi oro euskaraz sortuko dute.

4.5.1 Itzulpen irizpideak

Udala gaztelaniaz eta euskaraz aritzera behartuta dagoenean, udal langile eta ordezkariak era arrazionalizatuan erabiliko dituzte itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak.

Itzultzaile automatikoek egindako itzulpenen kalitate-maila handia da, baina muga batzuk dituzte; horregatik, funtsezkoa da testuak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketak egitea. Itzultzaile neuronalen erabiltzaileak izango dira sortu dituzten testuen eta testu horiek zabaltzeak izan ditzakeen ondorioen erantzule zuzenak.

Bestalde, arreta berezia jarriko da hizkuntzaren kalitatean, eta, bereziki, herritarrei zabaldu behar zaizkien idatzietan. Mezuek ondo idatzita egon behar dute, argiak eta ulergarriak izateko. Ezer argitaratu aurretik ziurtatu beharko da zuzen eta egoki idatzita dagoela, jendeak gaztelaniara jo beharrik ez izateko eta Udalaren irudia ez kaltetzeko.

Oharra: *“Erabilera Plan honek euskararen erabilera du ardatz, beste hizkuntzen erabilera ez du oro har kontuan hartzen; beraz “euskaraz egongo da”, “euskara erabiliko da”, “euskaraz jarriko da” edo antzeko esaldiak jasotzen direnean ez du baztertzen beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea. Edonola, bertako hizkuntza den euskararen normalizazioa helburu, Udalak zein kontratistek, herritarren eskubideak bermatzeko legediak eskatzen duen kasuetan erabiliko dute gaztelania, beti euskararekin batera.”*